



Uda-gau bateko ospakizuna

Jai ofizialik gabe, San Juan egunaren inguruan ospakizunak egin ziren Urnietako herrigunean eta Andoaingo auzune ezberdinetan / 2-8

Kaletxiki jai giroan murgilduko da

Etxean dastatu eta telefono bidez puntuaketa emateko sagardo lehiaketa, bertso saioa..., gizarte bizitzari eusteko gogo bizia erakutsi dute antolatzaileek / 15



Andoaingo San Juan bezperako eta San Juan eguneko ospakizunen irudiak / 2-7



Iñigo Eguskiza Urnietako irakasle eta sukaldaria Peñasal fundazioan / 9



Erremontearekin kirol jarduerak zuzenean ikusteko aukera zabaldu da / 15



SETIEN SAGARDOTEGIA

IREKIERA: UZTAILAK 3

Udako menua
Ostiral gaua, larunbat osoa
eta igande eguerdia

Oztaran auzoa, URNIETA. 943 55 10 14



Axeri dantzarien talde bat Ambrosia Olabide gizarte zerbitzuaren atzealdeko plazatxoan, San Juan egunean. AIURRI



Etxeberri plazan dantzan aritu zen Axeri dantza taldeetako bat. Hiru saioetako argazkiak eta bideoak webgunean ikusgai daude. AIURRI



Itziar Gutierrez, Joxerramon Karrera eta Irati Karrera elizako kanpaidorretik. AIURRI



AIURRI

Internet bidezko emankizunak

Ekainaren 23ko eta 24ko ospakizunak internet bidez eskaini zituen Andoaingo Udalak. Saioaren zati handiena ekainaren 12an eta 13an grabaturikoa izan zen, zuzeneko emankizunekin uztartu zutena. Ainhoa Aiertza aurkezle lanetan aritu zen, batzarraldi aretotik hainbat elkarrizketa eginez.

Jaiari eusteko ahalegina

Koronabirusak eragindako alarma egoerak baldintzatutako San Juan jaiak izan dira, aurtengoak. Ez dira ohikoan bezala ospatu ahal izan, eta saio asko ekainaren 12an eta 13an bidez grabatu zituzten. Txistulariek eta txalapartariak gaua girotu zuten



andoaINDARRA
euskaraz



Jose Luis Unanue. AIURRI

Pregoia Zumeatarra elkartearen eskutik

Jose Luis Unanuek eta Iñigo Aginagak jaien hasierako pregoia irakurri zuten, Udaletxeko balkoitik

Erredakzioa ANDOAIN

Pako Arnaiz elkarteak fundatzaileetako batek eta Irati de la Revilla eta Amaia Quevedo lehen emakume bazkideek suzuria jaurti zuten. Unanuek eta Aginagak, lehenago, pregoia irakurri zuten. Jarraian, adierazpenaren laburpena: "Jai batzordeari eskerrak eman nahi dizkiogu eskaini digun aukeragatik. Zumeatarra 1970 urtean lagun talde batek sortu zuen Zumea kalean. Oso harrera ona izan zuen eta lokala txikia geratu zenez, Belabi kalera aldatu zuten.

Elkarteak beti erakutsi du konpromiso handia gizartearekin, alde batetik kirol mailan, eta baita ere Santa Kruz jailetako zenbait ekintzetan ere.

Andoaingo auzoetako jai guztiak ere gogoan izan nahi ditugu, ezin izango baititugu ospatu nahi ditugun moduan. Hala ere Jai Batzorde guztiak animatu nahi ditugu aurrerantzean zeregin horretan jarrai dezaten.

Ezin ahaztu ere Andoaingo beste elkarte guztiak, beraiekin daukagun harreman estuagatik.

Eta bukatzeko aipamen berezia elkarteak sortzaileei, bazkide guztiei eta bereziki jada gurekin ez daudenei".

Kanpai errepika eta txalaparta auzoetan



Goiburun kanpai errepika, txalaparta, trikitixa eta beti bezala umore bikaina. AIURRI



Jon Etxeberria eta Alex de Lucas txalapartariak. Berrozpe etxeak pozarren zeuden txalapartarien bisitaldiarekin. AIURRI



Jon Urtasun eta Unai Arberas Maizorriko txalapartariak Sorabillako elizaren atarian. AIURRI



Maidar Lainez. AIURRI

Alkatearen adierazpena Udaletxeko balkoitik

"Zuhurtziaz eta errespetuaz jokatzeko jarraitzeko eskatzen dizuegu"

Erredakzioa ANDOAIN

Maidar Lainez alkateak Zumea-tarrako pregoilarien ostean hartu zuen hitza. Ezinbestean Koronabirusak eragindako alarma egoera hizpide izan zuen bere lehen hitzetan: "Aurten San Juan beste era batera biziko ditugu, COVID19ak eragin digu gehiago baloratzea familiako uneak, eta lagunekin izandako topaketak. Ezin izango dugu San Juan sua piztu, hainbesteko indarra ematen diguna, baina beste ekintza batzuk aurreikusiko ditugu gaurko eta biharko. Espero dugu haietaz gozatzea".

Udalak krisi osoan zehar egin bezala, erantzukizunez jokatzeko deia luzatu zuen Udaletxeko balkoitik egin zuen adierazpenan: "Jai giroan bada ere, arduraz, zuhurtziaz eta errespetuaz jokatzeko jarraitzeko eskatzen dizuegu, zauden lekuan zaudela, gogoratu baietz gabe ezetz dela".

Bukatzeko, jaiaren eta herriaren aldeko oihu bana bota zuen: "Zaindu zaitezte, eta elkarren batera oihuka dezagun: Gora San Juanak! Gora Andoain! Gora andoaindarrok!".

Adierazpen hori zuzeneko emisioan eskaini zituen. Ondoren, ekainaren 23rako prestatu zuten saioko irudiak eskaini zituzten.



Udal Musika Eskolako abesbatza. AIURRI



Udal Musika Eskolako banda. AIURRI

San Juan bezperako ospakizuna

Andoaingo Udalak jaiez gozatzeko ekitaldi sinbolikoa grabatu zuen joan zen ekainaren 12an, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. Zuzeneko saioak eta grabaturikoak uztartu zituzten ekainaren 23ko internet bidezko emankizunean

Erredakzioa ANDOAIN

San Juan bezperan Goikoplazan egiten diren ekitaldiak irudikatze asmoz, lau grabazio osatu zituzten ekainaren 13 eta 14an, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. Grabazioak, gainera, modu diskretoan egin ahal izateko plastiko beltz batekin estali zuten ikastetxeko hesitura.

Udal agintariek soka dantzari heldu zioten, bakarkako zortziko alpargata oinarritzat hartuta. Ohikoan bezala, Urkiko dantzarien eta Olagain txistulari elkartearen laguntza izan zuten.

San Juan bezperako gauan egin ohi den tradiziozko emankizuna osatzeko, berriz, bi grabazio burutu zituzten. Batetik, Udal Musika Eskolako Banda eta Abesbatzak, Soinuak esko-

lako ikasleak eta Olagain Txistularien Elkartek bat egin zuten, *Andoaingo Ereserkia* eta *Zortzikoa* abestu eta interpretatzeko. Bestetik, Urki dantza taldeak dantza emankizuna osatu zuen; besteak beste, *San Juan Zortzikoa*, *Erreberentzia*, *Desafioa*, *Makil Handi* eta *Launakoa* eta *Binakoa* dantzatu zituzten.

Azkenik, eta ekainaren 23an emititzeko asmoz egindako grabazio saioarekin amaitzeko, Malkogarriyak taldeak ordu erdiko kontzertua eskaini zuen.

Musikari eta kantari guztiek trebeziak eta zuzenean ariko balira bezala jardun zuten; gogotsu erantzun zieten teknikarien aginduei, nahiz eta horiek behin eta berriro errepikatzen agindu.



Alkateak eta udalbatzak soka-dantza eskaini zuten. AIURRI



Soka-dantza eta bakarkako zortziko alpargata eskaini zuten. AIURRI



Soinuak musika eskola, Susana Cencillo irakaslearekin. AIURRI



Olagin Txistulari Banda. AIURRI



Urki dantza taldeak saio bikaina eskaini zuen, urtero lege z Euskal Herriko hainbat dantza plazara eramanez. AIURRI



Urki dantza taldea. AIURRI



Malkogarriyak taldea. AIURRI



Garazi Kamio idazleak Erraldoi eta Buruhandien konpartsa osatzen duten pertsonaiak aurkeztu zituen, bideoz grabatutako saioan. AIURRI

San Juan eguneko ikuskizuna

Ekainaren 13an Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren saioa, trikitilarien emankizuna edota bertso saioak grabatu zituzten. Axeri dantzaren emanaldi bat zuzenean eskaini zuten San Juan egunean, streaming bidezko emankizunean

Erredakzioa ANDOAIN

Ekainaren 24an emititzeko asmoz, Buruhandi eta Erraldoien konpartsaren, Andoingo trikitilari gazteen eta bertsolarien saioa grabatu zituzten ekainaren 13an, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. Buruhandi eta Erraldoiek Tolosako Dultzaineroekin batera plaza eta kaleetan egin ohi dituzten dantza saioez gain, azalpen didaktikoa egiteko probestu zuten grabazioa. Garazi Kamio idazleak Andoingo Konpartsa osatzen duten pertsonajeak banan-banan aurkeztu zituen, bai lau Erraldoiak (Juan Legarra eta Cecilia Legarra, eta Aze-laingo Señoritua eta bere maitalea) eta baita Plazaolako lanbideak ordezkatzen dituzten zortzi Buruhandiak (meatzaria,

olagizona, ikazkina, emakume estraperlista, makinista, gelto-kiko nagusia, arrieroa eta Le-biton).

Andoingo Trikitilari gazteak, bere aldetik, saio labur bezain bizia grabatu zuen. Leire Esnaolak eta Maialen Santa Krutzek zuzendu zuten soinu-jole eta pandero-jole gaztez osatutako taldea.

Bertso saioa izan zen hirugarren emanaldi grabatua. Miren Amuriza, Amaia Agirre, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Ion Beloki, Andoni Egaña bertsolariak Unai Ormaetxea gaitortzailearen esanetara jarri ziren, 30 entzuleren aurrean. Bertsolariena ikusle talde mugatu baten aurrean egindako saio bakarra izan zen.



Andoingo trikitilariak, soinu joleak eta panderojoleak emanaldia amaitu ostean ateratako taldeko argazkian. AIURRI

Lagun arteko bertso saioa, ez ohiko egoeran

Punttuka bertso eskolako eskutik, aurten ere San Juan jaietako bertso saioa egin ahal izan da. Modu telematikoan, hori bai, ekainaren 24tik aurrera ikusgai ipini zuten bideoan. Prebentzio neurriak zirela eta, zuzenean ikusteko 30 lagun elkartu ziren soilik



Ormaetxeak gaia ipini zien Belokiri eta Mendiluzeri, ekainaren 24rako prestaturiko saioan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Miren Amuriza, Amaia Agirre, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Ion Beloki eta Aitor Mendiluzek San Juan egunean tradizio bilakatu den bertso saioa osatu zuten, joan zen ekainaren 13an. Punttuka bertso eskolako Unai

Ormaetxea gai jartzaile lanetan aritu zen. Saioa bideo bidez ikus daiteke, eta zuzenean soilik 30 lagunek ikusteko aukera izan zuten.

Hona bertso aldietako bat. Gaia: "2020ko ekaina da. Andoni Egaña hil egin zaigu. Andoni, hau zure

hileta eguna da, eta adiskiderik fidelenak azken agurra ematera etorri zaizkizu. Lagun bakoitzak bizian inoiz aitortu ez zizun hori adierazteko aukera edukiko du. Ondoren, Andonik (bizirik balego), erantzungo liekeena entzungo dugu".

GAIA JARRITA: ANDONI HIL ZAIGU

Aitor Mendiluze:

Joan da Andoni, gure Andoni, beti osasun juxtuko. Ospitalean nola etzuen ba zigarro hori piztuko. Poz bat badaukat, txikia baina, ezin egin diot uko: behingoagatik argazkietan ez gaituztela nahastuko (bis)

Andoni Egaña:

Azken agurra entzun Aitorri eta nola ez berotu! Nere zigarro ta gure antza bidatu horiexei lotu Esango nuke, ai! Mendiluze: erotu al haiz, erotu? Nik txapelketan inoiz ez nian bigarren posturik lortu (bis)

Ion Beloki:

Ai! gure Andoni gaurko honetan joana zaigu zuloa parranda askotan jende askori kendua diozu loa. Nahiz ta batzutan nei iruditu zu zarauztar txuloa, txikitatik zu izan zinen bertsoetako idoloa (bis)

Andoni Egaña:

Bere idolo izan nintzela pozgarria da puñeta! Parrandero ere deitu ez dit bat horri ipiniz arreta! Arrazoi dauka, jende askorekin nabil edan ta erreta. Baina lorikan ez det lapurtu, norberak egiten du eta (bis)

Maialen Lujanbio:

Lehen nik lehenesten zintudan Jainko haundien antzera. Gero errespetu gehiegizkoa ta egiten nuen atzera. Gero inbidia ere izan nizun, zu beti onena zera. Ta azkenik lagun zintudanean zu, jata, hil egin zera (bis)

Andoni Egaña:

Nunbait miretsi egiten nindun nerabe zela hasteko. Begirunea sortuaz gero ene zenbat errespeto! Azkenerako laguna nindun, enuen asko usteko. Ene, Maialen hori jakinda ni kapaz naiz berpizteko (bis)

Amaia Agirre:

Barra ertzean maiz izan zera patriarkatu noblea. Gai jartzen zera, Amaia, artista, a ze nolako lorea! Eta bertsoan bueno, ba, hortxe ezin zera aztu ordea. Zu ere bizirik oso ona zinan, hilda askoz e hobea (bis)

Andoni Egaña:

Esaten nizun gai jartzailertzan hoberik ez da aukeran. Eta bertsoan, bueno, hola hola, zeuk aitortu dezan eran. Nola mikroan zorionean den-denok aldatzen geran, salto txiki bat sumatu nizun nere heriotza bezperan (bis)

Miren Amuriza:

Saio ostean kotxea hartuta banindoa ipurterre. Andonik, lasai, esaten zidan, ez etxeratu haserre. Galdetu gabe enion uzten, lengoetatik ezerre. Baina enitzen ausartu esaten nire kotxean ez erre (bis)

Andoni Egaña:

Sekula ere esan gabea Mirenek hor utzia, tak! Pentsatzen nuen hik zigarroa burmuinetan bertan daukak! Salpikadero gainetik, aizu, kenduko al dituzu hankak? Ni erretzaile bilakatu nau besteren ausardi faltak (bis)

Saio osoa ikusgai: Andoain.eus

TRASTEROEN SALMENTA – ZUMEA PLAZA, 5

AZKEN TRASTEROAK

HAINBESTE ESPAZIO BETETZEN DUTEN TRASTEETAN ZER EGIN EZ DAKIZULA?
Hurbil zaitez ikustera, konpromisorik gabe.
Tratu pertsonalizatua eskainiko dizugu.

IVA/BEZa ordaintzeaz salbuetsita.
Zure beharretara egokituko dizugu.
Entrepilantza egiteko aukera.

KALITATE BIKAIENKO MATERIALA
Aire irteera, baldosa,
Argi kontagailu propioa.

NEURRIAK
4 m²-tik 8,30 m²-ra x 3 metroko altuera.

FINANTZIAZIORAKO AUKERA

BEREHALAKO ENTREGA >> INFORMAZIOA 604 388 941



San Juan bezpera eta San Juan eguna Aiurri.eus gunean

Albisteak | Argazki-bildumak | Bideoak

www.aiurri.eus



Landagunean su ezberdinak ikus zitezkeen gaueko 21:00ak pasatxo zirenean. AIURRI



Gau giro ederrarekin bizilagun taldeak kalean afaldu eta tertulian jarraitu zuen, lasaitasun ederrean. AIURRI

"Koronabirus denak erre! Viva San Juan alegre!"

Txanbolin, Kantazaun eta Sorginen taldea San Juan bezperako ospakizuna alaitzen aritu zen, kalez kale. Garaian garaiko egoerari abestu zioten, gainera, kalejiran zehar. "Koronabirus denak erre! Viva San Juan alegre!" ozen abestu zuten



Etxeberri plazatik herrigunera abiatu ziren kalejiran, San Juan plazara iritsi aurretik. AIURRI



Juxto Egañaren esanetara kantuan, Kantazaun taldeko kideak. AIURRI



Sorginik gabe ez dago San Juan bezperako ospakizunik, Urnietan. Su txikia piztu zuten, gainera. AIURRI



Iñigo Eguskiza urnietarra, ikasleekin batera, Tolosako Triangulo plazan egindako jendaurreko ekitaldian. AIURRI

Sukaldari eta irakasle

Sukaldaritzak izan da bere ogibidea, urte luzetan. Iñigo Eguskiza urnietarra Tolosako Peñascal institutuan ari da irakasle, bere garaian ikasteko aukerarik izan ez zutenei lanbideak irakasten

Andoni Urbistondo URNIETA

Iñigo Eguskizak su eta kazuela artean eman ditu bere bizitzako azken bi herenak (Urnieta, 45 urte). 27 urte daramatza sukaldari sartuta, molde ezberdinetan. Bi hamarkada luze han eta hemen egin zituen, jatetxe ezberdinetan. Azken bost urtetan irakasle jardunean ari da, Tolosako Peñascal institutuan, lanbide heziketa eta bigarren aukerako ikasketak eskaintzen dituen zentroan. Maite du bere lana, lotura berezia sortzen baita ikasle eta maisuen artean. Aurrena eskolak, lanbide bat ikasteko zubi lana egiten du, eta gero, denak elkarrekin sukaldari prestatatutakoa dastatu. Institutuan telelana etxetik egiteko eskaini zioten Iñigori, bizi ditugun garai zailetan, baina otorduak prestatzeko beharra handitu egin zela esan ziotenean,

pentsatu ere ez zuen egin. Otordu horiek prestatzeko zeregina bizkar gain hartzea erabaki zuen institutuan bertan, etxean geratu beharrean.

Peñascal institutuan oinarritzako lanbide heziketa erakusten da, bigarren aukerako ikasketak, bere garaian arrazoi bategatik edo besteagatik ikasketak egiteko aukerarik izan ez zuen jendearentzako eskolak. Eguskiza gazte eta helduekin aritzen da: “Sukaldaritzak eskolak ematen ditut, baina baita matematikak, irakurmen eta entzumen gaitasuna, teknologia eta beste”.

PEÑASCAL INSTITUTUAN OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ERAKUSTEN DA

Ikasketaz, eta jardunaz, sukaldaria da urnietarra, baina azken bost urtetan irakasle lanean ari da.

Bere egun arrunt bat goizeko 8retan hasten da: “Matematika, teknologia irakasten dut, lehen orduetan, eta 11:00etatik aurrera tailerrean aritzen naiz, sukaldari eskolak ematen. Ikasleak formatzen ditut, eta bigarren kurtsoan sukaldari ematen ditugu eskolak, sukaldaritzak praktikak. Berez teknologia ematen dut, maila teorikoan, baina teknologia barruan sukaldaritzak ere badago”. Astero sukaldaritzako 15 ordu irakasten ditu, teknologia bost ordu, eta matematika, irakurmena eta entzumen beste bi ordu. Peñascal institutuak, eskolak emateaz gain, ‘Tolosa Mikologikoa’ izeneko ekitaldian ere parte hartzen du. Azkenekoan 400 pintxo ekoi-

tzi zituzten, “eta hor bildutako dirua premia duten familientzat bideratu zen: eskola gastuak, berogailua, elektrizitatea edo beste”.

Duela bost urte hasi zen irakasle. Ordura arte sukaldari izandakoa da, han eta hemen, bi hamarkada luzez. Aldaketaz galdetuta, honakoa dio: “Beno, sukaldaritzak sakrifizio asko eskatzen du, ordutegi aldetik, batez ere. Lan ordu asko egin behar dira, pasio handia eduki behar duzu su tarteetan luze irauteko, eta erretzea, nekatzea nahiko erraza da. Ni etapaka ibili izan naiz beti nire bizitzan, sukaldaritzak molde jakin baten arrastoan. Sukaldari etapa pasa zen, eta orain irakasle jardunean ari naiz oso gustura”.

Gazte eta helduekin aritzen da, eta oso kontent dabil egiten duen lanarekin. “Gazteekin-eta harreman ona dut, berezia, lan asko ematen didate, eta energia asko kentzen didate, baina ondoren, kaletik lasai joan, eta ikasleek, edota lagundu diozun norbait zuregana etorri eta besarkada bat ematea, berari lagundu diozulako, niretzat keinu ikaragarria da, asko betetzen nau”.

Koronabirusaren ondorioak

Denean bezala, koronabirus gaitza Tolosara ere iritsi zen. Gogor kolpatu du hiri handi hori, eta horrek institutuan espero ez zuten egoera berezia sortu du. “Otorduak prestatzeko beharra sortu da, jende askok ahora zer eraman ez daukalako eta horretan ari naiz, janariak prestatzen beharra dutenentzat”, dio Iñigok. Herriararren laguntza izaten ari dira zeregin horretan, “elikagaiak musu truk ematen dizkiguten herriar asko daude, eta guk geuk eskolak emateko egunero elikagaiak erabiltzen ditugunez, ba horretan ari gara”.

Birusarekin familia asko premia gorrian geratu dira, eta Tolosako Udalarekin elkarlanean janaria prestatzen ari dira Peñascal institutuan. Iñigori egunero esaten diote, hainbeste otordu prestatzeko, eta hori egiten du.

GAZTE ETA HELDUEKIN ARITZEN DA, ETA OSO KONTENT DAGO EGITEN DUEN LANAREKIN

“Orain arte ikasle eta halako beka edo laguntzak jasotzen dituzten langileei eman izan diegu bazkaria, institutuan bertan, ze janaria ezin dugu saldu. Orain premia duen jende kopurua hazi denez, haientzako ere prestatzen ditugu otorduak”. Kopuru bat eskatuta, orain arte ikastetxeko jendearentzat 30 bat otordu prestatzen zituztela dio sukaldariak, “eta orain 30 bat bazkari gehiago”. Teorian kopuru hori hazten joango dela uste du Eguskizak.

Iñigo bera gustura ari da elkartasun jardun horretan: “Niretzat lan erraza da, normalean prestatzen dudaren bikoitza prestatu eta kito. Janari arruntak, egunero edonork etxean jaten dituenak prestatzen ditugu: lekak, oilaskoa, barazki menestra... Tomatea, esnea, irina bezalako elikagaiak jasotzen ditugunean, menua apur bat aldatu eta kito. Nik otorduak prestatzen ditut, eta gero banaketaz beste kide batzuk aritzen dira”.

Eta derrigorrezko galdera. Bizi garen jendartea berekoia al da? Aho bazarrik gabe erantzuten du Eguskizak: “Bai, berekoiak gara. Detaleek erakusten dizute hori. Nik arraza beltzeko eskale bat ezagutzen dut, inori ez dio enbarazu egiten, baina jendeak ez dio ezer ematen, kanpotarra delako, eta horrelako jarrerak ez ditut ulertzen. Lagundu egin behar da, garai hauek inoiz baino gehiago. Sinesten kostatu egiten bazaigu ere, bada hilabete bukaerara iristeko komeria latzak dituen jendea, edota otordu bat egiterako orduan ahora zer eraman ez dauden herriarrek. Badaude. Elikagai Bankuak eta beste funtsezkoak dira, baina horiek ere ezin dira etxe guztietara iritsi. Sabela beteak daukazunean hobeto pentsatzen, ikusten dira gauzak, eta horretaz hausnartu beharko genuke”.

Eguskizak garbi dio ez zaiola protagonismoa gustatzen, ez duela arreta gune izan nahi orain egiten duen jardunagatik: “Laguntzaile anonimo izan nahi dut. Nire lana egiten dut, nire zeregina daukat, baina ez dut nahi inolako esker keinurik edo publizitaterik nahi egiten dudana egiteagatik. Nire borondatez egiten dudalako, inork horretara behartu gabe, eta egin behar dudala sentitzen dudalako”.

Urko Muñoz Berasategi gogoan

Urnietako gaztearen heriotzaren lehen urteurrenean, Urkoren gertukoek eta lagunek Manttaleko aterpearen ondoan gogoan hartu zuten. Haren errautsak bota zituzten pagoaren azpian elkartu ziren, Urko gogoan dutela erakutsiz. 35 urte besterik ez zituela hil zen 2019ko ekainaren 23an, eta kolpe handi samarra izan zen urnietar askorentzat. Ez dute adiskidea berehalakoan ahaztu nahi.



URBIX



San Juan bezperako argazkiak eta bideoak Aiurri.eus gunean

www.aiurri.eus

Gazte informazioa goizez zabalik izango da

Gazte Informazio Puntua herriko gazteentzako informazio eta aholkularitza bulegoa da ondorengo gaitan: lana, ikasketak eta sexualitatea, besteak beste. Halaber, txartelen tramitazioa (ikasle, gazte, aterpe...), gauzatzen laguntzen da bertatik, eta bidaia giden mailegua ere eskaintzen dute.

Uztailean zehar eta irailaren 7ra bitarte goizez zabalik izango da (10:30-13:00). Abuztuan, ordea, itxita izango da.

Harremanetarako:

- Telefonoa: 943 333 973 / 650 250 356.
- E-posta: gazteinformazioa@urnieta.eus.
- Instagram: @gazteinfournieta.

Bonoak erosteko aukera, datorren astelehenean hasita

Bonoak erosteko aukera izango da ekainaren 29tik aurrera, azaroaren 30a bitarte

Erredakzioa URNIETA

Herri gehienetan bezala, Urnietan ere herri barruko kontsumoa areagotzeko bono bidezko erosketa sistema abian jarriko dute.

Udalak berriki 70.000 euro zeregin horretara bideratuko dituela jakinarazi du. Bonoa eskuratzen duenak 20 euro ordaindu eta 30 euroko balioa duen erosketa egin ahal izango du, herriko merkatalguneetan. Kanpainan parte hartu duten merkatariek aurretik izena eman behar zuten. Herritar bakoitzak 30 euroko bi bono-sorta mota

erosi ahal izango ditu: 5 euroko 6 bono edo 10 euroko 3 bono.

Eroslearen gastu erreala, beraz, 20 eurokoa izango da. Gainerako 10 euroak Urnietako Udalak egindako ekarpenarekin osatuko dira.

Bonoak salgai izango dira ekainaren 29tik aurrera. Azaroaren 30a bitarte indarrean izango da bonoen balioa.

Merkatariei eta autonomoei laguntzak eta kenkariak eskaini dizkie Udalak, udaberriaren hasieran sortutako pandemiari aurre egin ahal izateko.



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Urnietako
udala



Bideo eta argazki-bilduma zabala



Bideoa: Manifestazioa, Eskubide Sozialen Karta




Bideoa: Erremontea, aurkezpen ekitaldia



Bideoa: Euskaraldiaren aurkezpena Donostian



Bideoa: Mintzalagunen eskertza



Bideoa: Olagain Txistulari Banda



Argazkiak: Iraganeko San Juan jaiak



Bideoa: Urnietako Gazte Festak 2020



Bideoa: Asun Garcíaren omenezko kantua



Bideoa: Baserrien eraisketa Buruntza auzoan



Uda giroan egunero-egunero mendizaleen ibilgailuak aurki daitezke bide bazterrean. AIURRI



Errepide zati honetan seinale horiak alde banatan jarri dituzte. AIURRI

Aparkaleku eremuak mugatu dituzte

MENDIZALETASUNA Besabi eta Xoxoka arteko bidean, debekatutako tokietan marra horia margotu du Urnietako Udalak; 200 euroko isuna jaso dezake marra horien gainean aparkatzen duen auto gidariak

Andoni Urbistondo URNIETA

Azken egunetan Adarramendi, Onddi edo Onddo mendietara joan den mendizaleak marka horiak ikusiko zituen errepide bazterretan. Horia dagoen tokian aparkatzea debekatua dago, eta

helburua garbia da: larrialdiren bat gertatzen bada osasun edo suhiltzaileen auto edo kamioiek bidean oztoporik ez topatzea. Izan ere, eguraldi oneko egunetan eta uda betean, ohikoa da hainbat errepide tartetan autoak

alde bietan aparkatuta ikustea, norabide bikoitz librea oztopatzen.

Besabitik Xoxokara bidean aparkatzeko tarte ugari atondu dute. Besabi ondoko zuzen guzuean, mendiaren kontra, uraren estoldara bitarteko tarte librea

tuko da laster (egun debeku marra 20 bat metro gorago dago). Bihurguneak dauden tokietan debekua bi ertzetan arautu dute, baina Armuntoko ur biltegira daraman 200 metroko tartean aparka liteke, jaisten den errailaren eskuin aldean. Armuntoko bidegurutzeko bi lur sailetan ere toki handia dago, eta Errekamunto baserrira daraman bidegurutzea baino lehen dagoen 400 metroko zuzen guzuean ere bai. Hor ere jaisten den errailaren eskuin aldean aparkatu behar da. Xoxokara iristen den azken tartean ere aparka daiteke, errailaren eskuin aldean.

Urnietako udaltzainek eta Ertzainek dute isunak jartzeko eskuduntza. 200 eurokoa da zi-

gorra, 100 isuna jarri eta berehala ordaintzen bada. Orain arte jarritako isun kopurua aintzat hartuta, Ertzaintza izan da gehiago jarri dituen, baina batzuk eta besteak etengabe ibiltzen dira Xoxoka eta Besabi arteko bidean, zaintzan. Isunik ez jasotzeko aukera onena, marra horia dagoen bazterretan ez aparkatzea. Aparkatzeko eremuen mugatzeak mendizaleek Xoxokatik Urnietara daraman bide zaharraren bazterrean aparkatzeko beharra sor dezake (tren geltokira daraman errepidea), baina egoera horrek ez ditu udaltzainak soberra arduratzen, larrialdi zerbitzuek Besabiraino iristeko Irurain gainera abiatzen den errepidea erabil dezaketelako.



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



25 €

Harpidetza egiteko,
Aiarri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



**AIURRIKO
HARPIDETZA
KANPAINA
BEREZIA**

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

***OHARRA:** Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago

Erremontea zuzenean ikusteko aukera

ERREMONTEA Galarreta frontoiaren 50. Urteurrena Txapelketa abiatu da, eta larunbatero izango dira norgehiagokak. Aiurri erremonteko txapelketen jarraipena egiten ari da

Mikel Arberas HERNANI

Galarreta frontoiak ateak ireki ditu, hiru hilabetez itxita egon ostean. Eta ez nolanahi, gainera! Galarretako 50. Urteurrena binakako txapelketarekin koronabirusaren osteko lehiari ekin diote. Zuzenean ikusteko lehen kirol jardueretakoa bilakatu da, gainera.

Lehen partidari Juanenea eta Endika gailendu ziren Urriza-Zubiri bikotearen aurka (28-35). Bigarren partidari, berriz, Ansa II-Larrañaga bikoteak partida nabarmenki irabazi zuen, 23-35.

Joko ona ikusi zen frontoian; urdinek maila bikaina erakutsi dute eta faboritoak gailendu zituzten. Urriza eta Barrenetxea ez dira ezarritako mailara ailegatu, beraz, oso zaila izan dute aurkariak menderatzea.

Horrekin guztiarekin, bi partidek antzerako garapena eduki dute. Esan beharra dago, lehen norgehiagokak emozio gehiago sorrarazi duela. Lehen partidari Endika pilotaria nabarmendu da, eta bigarrenetan, berriz, Ansa II urnietarra izan da partidari gidatu duen erremontista.

Txapelketa zuzenean eskaintzen ari da ETB. Endika Barrenetxeak bere kaskoan daraman kamerako irudi ikusgarriak tartekatuz, gainera.



Imanol Ansa maila ona eman zuen, lehen partidari. AIURRI

50. URTEURRENEKO TXAPELKETA

1. jardunaldia. 2020/06/20

Urriza-Zubiri 28

Juanenea-Endika 35

Goikoetxea V-Barrenetxea IV 23

Ansa II-Larrañaga 35

Sailkapena:

1. Ansa II-Larrañaga 4

2. Juanenea-Endika 4

3. Urriza-Zubiri 0

4. Goikoetxea V-Barrenetxea IV 0

2. jardunaldia.

Ekainak 27, larunbata:

Ansa II-Larrañaga

Juanenea-Endika.

Goikoetxea V-Barrenetxea IV

Urriza-Zubiri.

3. jardunaldia:

Uztailak 4, larunbata.

Finalurrea:

Uztailak 11, larunbata.

Finala:

Uztailak 18, larunbata.



Barrenetxea, Gopro kamarekin.

Endika Barrenetxea

Gogotsu antzematen zaizue, lehiaren hasieran.

Geure artean gose handiarekin gaudela antzematen da, eta hiru hilabetezko geldialdiak antsietate puntu bat ere sortzen digu. Horrenbesteko gogo dugu jokatzeke, orain arte pasatako minutu guztiak aurkezpenen ahaztu egin zaizkigula.

Pozik zaude piztu den ikusminarekin?

Egia esan, bai. Harrituta gaude sare sozialetan edukitzen ari garen zabalkundearekin; gainera, gainean eraman behar dudana Gopro kamerak ere eman du zer esana. Nik uste dut, ez didala eragingo jokatzeke mementoan.

Galarretaren urteurreneko txapelketari bikoteak mailakatu daude?

Bai, baina bada bikote bat oso maila onean ikusten ditudanak, Juanenea eta Endikarena. Urriza eta Zubiri aspalditik ezagutzen dira eta txapelketa bikaina egingo dutela pentsatzen dut. Oro har, bikote guztiek maila bikaina dute.

IRITZIA

ANDONI URBISTONDO
URNIETA

Kirol pandemia

Hasi da kirola. Munduko ezagunena. Sofa gainekoa kirolari profesional ez garenontzat. Futbola, saskibaloia, telebista ikusi behar derrigor. Erabaki horrekin ados ez dauden futbolzale petoak ezagutzen ditut, futbola erabat alboratzea erabaki dutenak, harmailak joan ezin dutelako. Arraroa denik ezin ukatu, batez ere emankizunetan giro soinu faltua entzuten denean.

Erremontean, zehazki, zaleen presentzia baimendu dute. Bere gaitasunaren %50ean ireki zuten Galarreta, pilotalekuko 50. urteurrena betetzen den garaian.

Dena ondo antolatuta: Desinfektatzeko gela, musukoa, non eseri zintezkeen ondo adierazita... eta pilotariak! Pilota, oihuak, kolpea, amorru keinuak... kirola esentzian!

Imanol Ansa eta Goikoetxea V. urnietarrak kontrario. Ansa II. eta Larrañaga azkoitiarrak irabazi zuten, eta Galarretan duela hamarkada asko biltzen den katedradunei honakoa entzun nien, irteeran: *"Este pequeño de Urnieta juega mucho"*. Ikaragarri jokatu zuen Imanolek, eta 18 tanto egin. 18 egun izango ditu uztailak, binakako finala jokatzen denean. Iban Larrañaga bertan izatea espero dut. Hala bada ondoan izango baitu Ansa II. kidea. Imanoli *"Txikia bai, baino eskasa ez"* esaten dion laguna.

ERREMONTE TXAPELKETA

EKAINA 27 JUNIO

Larunbata Sobado

15:30

1

ANSA II LARRAÑAGA VS JUANENEA ENDIKA

2

GOIKOETXEA V BARRENETXEA IV VS URRIZA ZUBIRI

3

URRUTIA II AIZPURU III VS ETXARRI LABAKA

Juan Mari Artola andoaindarra gogoan

1980ko eta 1990eko hamarkadatan Gipuzkoako eta Andoaingo politikagintzan nabarmendu zen, Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik. "Herriko gaiekin kezkatzen zen andoaindarra" zela adierazi du Mikel Arregi alderdikideak

Xabier Lasa ANDOAIN

Juan Mari Artola Lizarribar ekainaren 20an hil zen, 88 urte zituela. Artolak ibilbide luzea egin zuen herrigintzan eta politikagintzan, EAJ-PNV alderdiarekin batera. Maria Dolores Ugalde zen bere emaztea, eta Iñaki, Xabier eta Leire hiru seme-alaben aita zen. Bere aldeko hileta-elizkizunak astelehen arratsaldean egin zituzten, San Martin parrokian.

Andoaingo zinegotzia eta Gipuzkoako Batzarkidea izan zen, EAJ-PNV alderdia ordezkatzuz. 1991-1995 legegintzaldian, Andoaingo alkatetzarako hautagaia izan zen. Zinegotzia gisa jardun zuen legegintzaldi hartan, Pilar Collantes (PSE-EE) alkate izan zelarik (argazkian, Mikel Arregi eta Iñaki Egibar alderdikideekin ageri da hitza hartuta, 1994ko apirilean ospatu zen udalbatzan).

Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzarkide izan zen bi legegintzaldietan (1983-1987 eta 1987-1991). Lehenbizikoan, Ingurumen, Ur eta Saneamendu Batzordeko lehendakari ordea izan zen. Ondorengo urteetan, Eli Galdos jeltzalea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahalduen Nagusia zelarik (1991-1995), Azpiegituretako diputatua zen Roman



Iñaki Egibar, Mikel Arregi eta Juan Mari Artola EAJ-PNV alderdiko zinegotziak Andoaingo Udala batzarraldian, 1994ko apirilean. PSE-EEko Pilar Collantes izan zen alkatea, agintaldi hartan. AIURRI

Suduperen aholkulari izan zen Artola; Leitzarango autobidearen gaia bete-betean egokitu zitzaion orduan.

Lan munduan, Labordeko langilea izan zen, eta 70 hamarkadaren amaieran Andoaingo lantegi ezagunetik irten eta udaletxeko zerga-aholkularitzara bideratu zuen bere lan ibilbidea. Geroztik, Andoaingo Udaleko langilea ere izan zen urtetan, obra eta zerbitzu etako buru hain zuzen. 1991n udal zinegotzi izendatu zutenean,

utzi egin behar izan zuen udal lanpostu hori.

Hiri eta landa-gunearen ezagupen handia

Juan Mari Artolak bikain eza gutzen zituen Andoaingo hiri antolamenduko gora beherak ez ezik, baita ere ingurune eta landa-guneak. Alde horretatik, aipatzekoa da jakintza horren adibide gisa, nola berak eragin zuen Andoaingo Udala Donostiako Udalarari 2017an mugarriztatze edo deslinde berri bat

2017an eskatu ziezaion, Sorabillako auzoan, Abalotz erreka ondoan dagoen lur sail bati lotuta. Triangelu forma dauka lur sail horrek, Zubieta eta Andoaingen artean dago, eta kasik 11 hektarea dauka. Artolak, idatzi zuenez, bi udalek elkarrekin zuzendu beharra zeukaten egungo plano topografikoek oker markatzen duten lur sail hori. Andoaingo Udala bere egin zuen eskaera hori, eta Josetxo Maraña idazkaria zenak dokumentu historikoez hornitutako txostena egin zuen. Era horretan, Ana Carrere Zabala orduko alkatea, Josetxo Maraña idazkariak eta Udala artxiboko arduradun Karmele Otaegik Eneko Goia Donostiako alkatearekin bilera eduki zuten 2017ko apirilean. Eskarari ezezkia ematea izan zen Donostiako Udalaren erantzuna, aurkeztutako agiri historikoen kontrako interpretazioa egin ostean.

Egun, auzia Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago, Andoaingo Udala mugarriztatze buruzko batzordea osatzea eskatu baitzion.

Herri kirolak modernizatzeko eragile nagusietakoa izan zen

Arlo asko ukitu zituen Artolak, eta herri kirolen maitale sutsua zenez, aipatu behar da kirol horien Federazioko sustatzaileretako bat ere izan zela hamarkadetan. Epailatza lanak hartu zituen lehiaketa eta apustu ugaritan, eta 60ko hamarkadan, funtsezkoa izan zen bere ekarpena herri kirolak modernizatzeko bidean; herri kirolek premia-premiazkoa zuten arautegia osatu zuen, Jose Ramon Aretxabaleta *Aretxa I* harri-jasotzailearekin batera.

"Gizon osoa, zentzuduna eta jantzia"

Juan Mari Artolak Mikel Arregi herrikidea eta alderdikidea lankide izan zuen Udala politikagintzan, zehazki 1991-1995 agintaldian. "Gizon osoa, zentzuduna eta jantzia", hitz horiekin definitu du Arregik Artola. "Udalagintzan maisu izan zen zinegotzi modura hasi ginenontzat, bere ondoan asko ikasi genuelako. Herriko gai eta gora beherekin kezkatzen zen andoaindarra zen. Gaur egun nekez ikusten den politikoetakoa zen". Gertutik jarraitu zuen lekukotza aparta eskaintzen du Arregik: "Pentsatzen zuena adierazteko ez zeukan erreparorik edukitzen. Gogoko zuen diferente pentsatzen zutenekin hitz egitea, eta ikustekoak izaten ziren, benetan, alkatearekin zein beste alderdiko ordezkariarekin pizten ziren eztabaidatan, zer nolako argudio eta ateraldiak erabiltzen zituen".

ARTOLA JELTZALEEN ORDEZKARIA IZAN ZEN GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAN ETA UDALETXEAN

GOIAN BEGO



Juan Mari Artola Lizarribar



Andoaingen hil zen 88 urte zituela, 2020ko ekainaren 20an

Andoaingo Udaleko zinegotzia 1991-1995.



ANDOAINGO UDALA

GUGAN BEGO



Ana Jesus Altuna Gorrotxategi



Andoaingen, 2020ko ekainaren 23an

Gela txiki batean emakume handi bat, koloreekin eta formekin jolasean. Bere irribarrean kulunkatzen ari da Ikastolako hainbat belaunaldiren haurtzarora.

Uda usaina hartu du zure izenak, Ana Jesus argiz jantzi zaigu zure oroitzapena. Ikastolan betirako gordeko zaitugu, etenik ez duen gure hariaren irulea.

AITA LARRAMENDI IKASTOLAKO LANGILEEK, FAMILIEK ETA IKASLEEK, ESKER ONEZ



Koro, Lourdes eta Maria Dolores, jaietako afitxa eskuetan. KALETXIKI



Jon Gabilondo eta Ramon Zalakain, sagardo lehiaketako prestaketa lanetan. AIURRI

Jai giroko ospakizunak Kaletxikin, asteburuan

Koronabirusak eragindako egoera zaila izan arren, egitarau oparoa prestatu dute Andoaingo auzunean. Ostiralean hasi eta igandera bitarte dozena bat ekitaldi antolatu dituzte. Kaletxikiko ospakizunak gainerako auzoentzat ere izan daitezke

Mikel Arberas ANDOAIN
Kaletxikiko festak antolatu dituen bizilagunen batzordeak asteartean salgai jarri zituen sagardo botilen sortak, 10 euroko prezioan. Online bidezko lehiaketa larunbatean izango da. Esan bezala, sorta bakoitzean hiru botila egonen dira Patxi Mendikuteren (Kaletxiki) eta Iker Etxeberriaren (Goikoplaza) harategietan. 150 sorta jarri dira salgai, eta eskualdeko sei sagardotegik hartuko dute parte.
Online sagardo dastaketan parte hartzen dutenek 5, 3 edo

2 puntu jarri beharko dizkiete sagardo botilei. Kalifikazio handiena jaso duen sagardotegiak lortuko du txapela preziatua. Puntuaketak egiteko mezu bat bidaliko da 688 893 562 telefono zenbakira. Horrez gain, lehiaketan parte hartzen dutenen artean Mizpiradin, Gaztañagan eta Oianumen hiru otordu bikoitz zozketatuko dituzte.
Auzo bazkariari dagokionez, aurten ez da La Salle Berrozpen egingo, Buruntza jatetxean baizik. 40-45 auzokide elkartuko dira, eta segurtasun neurriak

mantenduko direla nabarmendu du Eneko Urdangarin antolatzailerak.
Kantujira La Salle Berrozpeko patioan egingo dute. Kantatu nahi duenak metro eta erdiko distantzia mantendu beharko du. Kantatzen ez duenak, berriz, maskara jantzita egon beharko du.
Andoaindarrez osaturiko bertso saioa, ostiral iluntzean
Bertso saioan lehen aldiz sei bertsolariak eta gai jartzailea andoaindarrak izango dira.

Egitaraua

- Ekainak 26, ostirala**
19:00 Auzoan zapia jarriko da eta ondoren pregoia, jaiei hasiera emateko.
19:30 Bertsolariak.
Ekainak 27, larunbata
12:00 San Juan Bataiatzailea egoitzako aiton amon eta langileei omenaldia.
13:15 Kantujira. Sagardo txapelketa.
18:00 Kontzertua.
19:30 Danborrada.
Ekainak 28, igandea
09:00 Diana.
09:30 Mendi irteera.
12:00 Bingo.
13:00 Irrintzi txapelketa.
14:30 Auzo bazkaria.
19:00 Zapia kenduko da, jaiei amaiera emateko.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Elisabet Gallo Aizpurua
Urteak beteko ditu ekainaren 28an. Opari ederrena zuk egin diguzu. Etxekoak.



ANDOAIN
Aritz Irazu Roman
Aritzek datorren ekainaren 29an 7 urte beteko ditu. Muxu handiak etxeko txikiari.



ANDOAIN
Nora Mendizabal Ezeiza
Jarraitu pilotan asko jokatzen! Muxu handiak, amona Miren eta aitona Estebanen partetik.



ANDOAIN
Zorionak amoni
Datorren ekainaren 25ean urteak beteko ditu amoni Axunek. Muxu pila Axel eta Ingeren partetik, maite zaitugu!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez.

Erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:
• Webgunea: www.aiurri.eus.
• Emaila: diseinua@aiurri.eus.
• Whatsapp: 619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 27 eta igandea 28
MONFORT: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 27 eta igandea 28
ODRIOZOLA: Idiazbal, 18.
943 334 014. Urnieta.

**ANDOAINGO UDALA**

**ZAUDEN LEKUAN
ZAUDELA GOGORATU**

BAIETZIK GABE EZETZ DA

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Diputación Foral de Gipuzkoa

**ORAIN GIPUZKOA**



**“Ikasi dut
maskara
eramatea
besteak
zaintzea dela”.**

Aitor Izagirre
GURUTZE GORRIA GIPUZKOA

Erantzukizuna. Ni zaindu
egiten naiz. Zuk ni zaintzen
nauzu. Hori da erantzukizuna.
Ez gehiago, ez gutxiago.
Eskuzabaltasun ekintza bat
da, egoera honetatik garena
izanda irteten utziko duguna:
lurralde batua eta solidarioa.
Orain eta etorkizunean.

#AurreraEgitekoGogoratu

**Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro